

# Aretxagazeta

Aretxabaleta • 2000ko urriaren 26an • 200. zka.



Sarasua anaien disko kalean

Kode penal berr...

Gurutze-erajikaren pintura erakunketa

Aretxagazeta

Aretxagazeta

Ramon Elkorooren Diakonoitza

Tripartittoa eta Euskara

Pedro...

## ale zuekin

Iturririk iturri: Andoni Urzelai • Iritzia: Josu Velasco • Kirolak: Jonan Eskibel



## OPEL CORSA BERRIA



### OPEL CORSA BERRIA

Garaje Nortek datorren azaroaren 17an Bergaran izango den aurkezpena gonbidatzen zaitu.

**Aurkezpena:** Opel Corsa berria

**Lekua:** Ola tailerrak

**Ordua:** 20:00etan

*Garaje Talleres Norte, s.l.*

**OPEL** 



Kirolak eta sport modak bat egiten duten lekua

Bisita gaitzazu.

**ASTORE**

**trangoworld**

**SIQI**



# Esko Sport

Intxaurtxueta, 5 ESKORIATZA 943 71 52 96



## Aretxagazeta leiruten dozu? Zein atal gustetan jatzu gehixen? Aldizkarixe desagertuz gero, faltan botako zauke?



**Mariatzen Urkia**

Bai, leiruten dot. Gehixen herritarren iritzixek gustetan jat, baitte argazkixek be. Desagertuz gero faltan botako naukela uste dot.



**Amaia Garcia**

Beti beti ez dot leiruten baine jarten nazenien dana irakurten dot. Zorion agurrak asko gustetan jat. Bai, faltan botako nauke.



**Josu Aldai**

Normalien bai. Argazki zaharrak irakurtia eta ikustia gustetan jat. Herriko barrixak aurkitzie interesgarrixe da eta uste dot faltie igarriko nauela.



**Jose Miguel Aranburu**

Bai, leiruteko ohitturia dauket. Elkarrizketak eta kirolak leiruten dittut. Faltan bota? ba... bai.

### ESKUTITZAK



#### EZ DOK SERIXUE!

Domekan VI. patxaran lehiaketan manejauteko sei patxaran botilak eran bahittuen, ezpanak pegaute eta ipurdiraino kargaute fango hitzen etxera artista! On egin.

Badaezpada aurten eitten gabitzen patxarana nun gordeten doun eztuztau esango.

Atsaldien dastaketa hasi zanien, gure botilie falta zala akordau gitzuan, antolatzaillie esplikaziñuek eskatu eta sei botila harrapau jittuela esan juzkuen, besteik ezebez.

Txapelketiek, ezebe pasau ez balitz moduen aurrera in juan.

Hau ez dok serixue!

Datorren urtien ez dok gure patxaranik egongo lehiaketa xeibre horretan.

*Alberto Etxabe eta Iñaki Errasti*



#### DESOBEDIENTZIA ZIBILAZ

##### BURUJABETZA

Euskal Herrian autodeterminazioa gauzatzeko proposamen baketsuak eta ez-biolentzian oinarritutakoak plazaratzen dituzten pertsonak presondegira bidaltzen dituzte, erakunde armatuarekin gezurrezko loturak asmatuta.

Mahatma Gandhi, Malcolm X, Nelson Mandela eta nazioartean hainbeste onetsitako beste hainbatek erabilitako bidea, desobediencia zibil baketsuarena, noiztik da kriminala Euskal Herrian?

Patxik, Autodeterminazioaren Biltzarrak taldeko atxilotutako lagunak, beti esaten zidan Euskal Herriari eta bertako herritarroi dagozkigun eskubideen defentsa modu baketsuan egiteak min handia egingo ziela Estatu Espainolari eta Garzon epaileari. Arrazoi zuen.

Intsumisioaren garaipena gertuegi daukate. Ez dira berriz tronpatuko. Frankismo garaira itzuli dira eta Estatuaren batasunarentzat kaltegarri gerta daitezkeen ideiak kriminalizatu eta zapaltzeko arma guztiak erabiltzeko prest daude.

ABKtik bide hau proposatzen jarraituko dugu, modu baketsuan baina tinko. Gatazka politikoa gainditzeko herritarrok parte hartu beharra daukagu. Urratsak ematen hasteko garaia da. Adi egon! Hasteko, Donostian zapatuan egingo den manifestazioa daukagu atxilotuen askatasuna eskatzeko. Ez gelditu etxean.

*Xabier Sarasua*

## Aretxagazeta

200. zenbakia  
2000ko urriaren 26an.

Durana 11, 151 postakutxatila  
Aretxabaleta  
Tel: 943 79 86 21  
Faxa: 943 77 18 54  
e-mail: aretxagazeta@euskalnet.net

**Argitaratzailea:** Aretxabaletako komunikabideak-Loramendi elkarte.

**Lehendakaria:** Edorta Mendieta.  
**Erredakzio-konseilua:**  
Begoña Arenaza, Arrate Arkauz, Aintzane Lasa, Pello Zubizarreta, Arantza Antxia, Mireia Uribebebarria, Goretti Ayastuy, Ibon Agirre.

**Erredakzio arduraduna eta publizitate arduraduna:**

Mirari Altube eta Iratxe Bengoa.  
**Kolaboratzaileak:**  
Mikel Arroabe, M. J. Aretxaga, Joseba Lopez de Armentia, Inma Miguel, Aitor Antxia, Felis Beltran de Heredia, Loramendi E. E., Udala.

**Banatzaileak:**  
Aitor Urrutia, Iratxe Arbulu.

**Inprimategia:**  
Eguzkigraf, Koop. Elk.

**Tirada:** 2.500 ale.  
Aretxagazeta paper ekologikoan egiten da.  
**Legu gordailua:** SS378 / 94.  
ISSN: 1134-2609.

Aretxagazeta aldizkaria ez da kargu egiten aldizkarian adierazitako esanekin eta iritziekin.

Erakunde hauen laguntzaz



Aretxabaletako Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia



Eusko Jaurlaritzako Kultura saila



## Debagoienako ibilbideen gaineko liburuskak

Debagoienako mankomunitateko turismo sailak, eskualdeko herrietako ibilbiderik politenak jasoko dituzten liburuskak kale-ratuko ditu laster batean. Mankomunitatearen asmoa, ibilbidea seinalezatzea, Gipuzkoako mendi federazioak homologatzea eta ostean ibilbidearen barri ematen duen liburuskak argitaratzea da.

### Baliabide kultural, artistiko eta historikoa

Turismo saileko Ana Heriz atxabaltarraren esanetan, proiektu horren helburua ez da mendi urteeren barri ematea bakarrik. "Ibilbideak aukeratzeko orduan ez zaio bakarrik paisajeari begiratu, ibilbide horrek eskaintzen dituen baliabide kultural, artistiko eta historikoa ere kontuan izan da".

Hori dela eta Aretxabale-taren kasuan, Orotik hasi eta Larriñotik bueltan, Urkulu urtegia zeharkatu eta Azatzatik Ojala-Zelairaino doan ibilbidea aukeratu da. Paregabeko paisajeaz gozatzeko aukera eskaintzeaz gain, Oroko baserri dotoreak, Larriñoko San Kristobal eliza, Azatzako San Juan eliza edo Otalorako dorrea topa daitezke urteera honetan.

Ibilbidea zehaztua eta liburuskak egin bada ere, seinaleztapenari ez dio oraindik bere oniritzia eman mendi federazioak. Hori dela eta, liburuskaren banaketa atzeratu egin da. Momentuz Debagoiena osatzen duten herri bakoitzeko ibilbide bat argitaratuko bada ere, datorren urtean ibilbide gehiagorekin proiektu horri jarraipena ematea espero da.



Paisajeaz gain ibilbideak eskaintzen dituen baliabide kultural, artistiko eta historikoa ere kontuan izan dira



## Haizea

*Zure gustoko giroa*

Mitarte z/g  
Aretxabaleta  
Tel: 943 79 88 60

BITXITEGIA

MIREN & ZURIÑE  
BITXIEN DISEINUA

BITXIEN-KONPONKETA

Otalora kalea  
Eliza aurrealdean  
Tel.: 943 77 13 57

## JOSU HARATEGIA

Urdaitegia-Gozotegia  
kroasantegia  
Janari prestatuak

Mitarte kalea  
☎ 943 77 03 08



ESKER ONA

2000ko irailaren 7an  
**Fidel Antxia Ezpeleta**

Bere familiak  
bihotzez eskertzen ditu  
jasotako doluminak  
eta hileta elizkizunetara etorri izana.



## Festa giroa nagusi domekan

Eguraldia lagun hainbat herrialdetako gastronomia eta kulturek tril egin zuten domekan herriko plazan. Jendeak dantza ikuskizun polita ikusteaz gain, tarteka tarteka plazako postuetan tripa betetzeko aukera izan zuen. Batean txorizoa, beste urdaiazpikoa, pulpoa, denetik izan zen plazan, eta jakina, janariari laguntzeko edaririk ez zen faltatu.

### Patxaran botilak falta

Hala ere, dena ez zen espero bezala joan, izan ere, patxaran lehiaketan botila batzuk desagertu ziren arratsalderako, eta aurkeztutako guztiek ezin izan zuten txapelketan parte hartu. Irabazlea Jesus Balbas eskoriatzarra izan zen, bigarrena Jose Lonbide eta Nerea Aizpuru usurbildarra hirugarrena.



Laudiotik etorri zen Gaztela Leongo taldea



Corazon de Encinak ikuskizun polita eskaini zuen



Benetan jantzi dotorea da galiziarrena



Jende ugari batu zen Aratzek antolatutako euskal txokoan



Patxaran botila dotoreak aurkeztu ziren

GARBITU S. KOOP

*Garbiketa*  
*orokorrak*

Errekabarren 3- Behea  
Tel: 943 79 01 28

ITURGINTZA

**J.J**

Jose Jabier Irure

URA, GASA ETA  
KALEFAZIOA

Tel.: 943 79 07 34  
943 79 31 87

**OSKAR**  
**GARAJEA**

Basabe Poligonoa, A-2-4  
Tel.: 943 79 98 74  
Fax: 943 71 24 59  
ARETXABALETA

**M**

**MEMESA**

*Industri hornidurak*

Tel.: 943 71 24 11  
ARETXABALETA









## ESKUTITZA DIPUTAZIORA LARRIÑO ETA ARIENTZAKO BIDEAK KONPONTZEKO

Gero eta egoera penagarriagoan daude Lარიño eta Arientzako bideak. Denbora pasa ahala gainera, gero eta larriagoa da egoera, urtetik urtera euriak eta hotzak handitu egiten dituelako zuloak. Errepideak, ostera, Gipuzkoako Foru Aldundienak dira, beraz, konpontzeko ardura ere harena da.

Aretxabaletako udalak da goeneko bi bilera egin ditu Foru Aldundiarekin. Orain urte bete gaia aztertuko zuela esan bazuen ere, ez du hitza bete. Uztailean barriro ere bide hauek konpontzeko eskaera egin zitzaion, baina gaur arte ez da erantzunik jaso. Horren aurrean, udalak eskutitza bidali zuen joan zen astean eta alkatearen esanetan, behin eta berriz egingo da eskaera kasu egin arte. Bi bide hauek gutxi balira, Izurietarako errepidea ere premiazko konponketa beharrean dago.



Martizen eta eguenean papera batzeko zerbitzua egongo da merkatarientzat

## Papera eta kartoia batzeko zerbitzua merkatarientzat

Bailarako merkatariek papera eta kartoia batzeko zerbitzua izango dute Gabonetatik aurrera. Hala onartu zen joan zen urriaren 18an egindako Deba goienako mankomunitateko osoko bilkuran. Erabakia bailarako merkatarien taldeekin, Aretxabaletan Aretxarte, eta udalekin berba egin ostean hartu da eta atez ate batuko zaizkie

merkatariei papera eta kartoia. Aretxabaletan astean bi egunetan pasatuko da zerbitzu hau, martizen eta eguenean, eta zaborra batzeko guneetan utzi behar dituzte paperak. Momentuz hiru hilabeterako izango da zerbitzua, baina ondo funtzionatzen duela ikusiko balitz mankomunitatea gertu egongo litzateke luzatzeko.

## AUZITEGI POPULARRA OSATZEKO ZERRENDA IKUSGAI UDALETXEAN

Auzitegi popularra edo "jurado popular" deritzaiona osatuko dutenen zerrenda ikusgai dago udaletxean. Zortzi dira atxabaltar guztien artean aukeratuak, horietatik batzuk jubilatutakoak, eta guztiek, honez gero etxean jaso dute deialdia. Jubilatuek ez daukate zertan joanik, eta besteek ere ez joateko arrazoiren bat izanez gero, azaroko lehenengo bi asteak izango dituzte erreklamazioak aurkezteko. Dena dela, zerrenda horretan eta beste herri batzuetako zerrendetan agertzen diren izenen artean beste zozketa bat egingo da. Behin betiko zerrendak atera ostean, izendapena bi urterako izango da.

## KEPA URRRA ESPETXEZ ALDATU DUTE

Kepa Urra orain arte Alcala Mecon egon bada ere aste honetan espetxez aldatu dute. Gaurtik aurrera Coruñan dago Kepa eta jaso diren berri apurren arabera hona helbidea: Centro Penitenciario Teixe Curtis  
La Coruña

FOTO

# UrKiola

**Bataioak  
Jaunartzeak  
Ezkontzak**

**Albunak  
Argazki kamarak  
Markoak...**

Herriko plaza, 5-behea  
Tel.: 943 79 39 20  
ARETXABALETA



**Udalatz**  
InmobiliariA

Maalako Errabala, 27- behea ezk.  
20500 ARRASATE  
GIPUZKOA  
Tel.: 943 79 59 99

## Etxebizitza berriak salgai Aretxabaletan

- Etxeak, lokalak,... saldu-erosi
- Tasazioak
- Fiskal Aholkularitza
- Errentamenduak
- Kontratuak






## HITZARMENA IRAKASLE ESKOLA ETA UDALAREN ARTEAN

Mondragon Unibertsitatean dagoen Eskoriatzako Irakasle Eskola eta Aretxabaletako udalaren artean hitzarmena egin da bekario bat hartzeko asmoarekin. Irakasle eskolan, aurtan, goi mailako ikasketa berria ezarri da, hizkuntzen psikopedagogia, hain zuzen. Bertako ikasleek, ikasketa teorikoez gain, praktikak egin beharko dituzte eta hori bideratzeko Debagoienako hainbat udalekin hitzarmena egin du eskolak.

Bekarioek euskararen normalizazioaren alorrean lan egingo dute eta momentuz, guztiz zehaztu barik badago ere, Aretxabaletako udalari dagokionez, ludotekan, DBHko ikasleen artean edo merkataritzan euskara bultzatzen lan egingo luke. Lanen lehenbailehen hastera espero da eta 10 hilabete-an ibiliko da gure artean.



Ura, zaborra, etxebizitzaren zerga eta beste zerga batzuk %3,5 igoko dira

## 2001eko ordenantza fiskalak %3,5 igoko dira

Urriaren 16an egindako ezohiko plenoan 2001. urteko ordenantza fiskalak %3,5 igotzea onartu zen. Urak, zaborrak, etxebizitzaren zergak, obretako udal zergek eta dendarien zergek aipatutako igoera izango dute. Kotxeen zergari dagokionez, aldaketa etorriko da, kotxe motaren arabera eginda dauden taldeen artean berri bat egin-

go delako. Horien igoera %1,6tik hasi eta 3,5era bitartean joango da.

Kiroletzeko tasek ere igoera izango dute 2001. urtean, baina momentuz ez da zehaztu zenbatekoa. Mankomunitate mailan kiroletxeetako zerbitzuen prezioak bateratu gura direnez, herri guztien artean erabakiko da zein igoera ezarri.

## 1999KO ERROLDAKO DATUAK ONARTU DIRA

2000. urte hasieran onartu baziren ere 1999ko erroldako datuak, INEk, Instituto Nacional de Estadística deritzaionak, arazoak izan ei ditu eta datuak berrikusi ostean, berriak bidali ditu onartzeko. Datu horien arabera, 1999ko urtaririlaren 1ean 6.120 lagun bizi ziren Aretxabaletan, horietatik 3.126 gizonetakoak eta 2.994 emakumetakoak. 1998an, bestalde, 39 haur jaio ziren eta 35 lagun hil. Aretxabaletara kanpotik etorri zirenak, 204 izan ziren, horietatik 3 atzeritik eta joan zirenak 88. Poliki-poliki bada ere biztanle kopurua gora doala esan daiteke.

## KONTUHARTZAILE LAN- POSTUA BETE DA

Urriaren 16an egindako osoko bilkuran, kontuhartzaile teknikari lanpostua Begoña Arenaza atxabalarrari ematea onartu zen. Postu horren jabe egiteko lehenengo azterketara 15 lagun aurkeztu ziren, eta horietatik bi besterik ez ziren pasatu aurrera. Begoña, lehen ere lan horretan ibilitakoa da gure udal-etxean, orain, barrez, Elgoibarko udaletxean zegoen.

**Maritxu**  
Mertzeria

Araba Ibilbidea, 24  
Tel.: 943 79 23 53

**ANDRA  
MARI**  
Aholkularitza

- Fiskala  
- Kontablea  
- Juridiko/laborala

Andra Mari Auzunea, 3  
☎ 943 79 29 26

**NERIAN**

LORADENDA

Enkarguak: 943 79 70 66  
Otalora, 14 behea

■ Erramuak  
■ Koroaiak  
■ Lore zikuak  
■ Ezkontza, atarteetako  
loreak...

Guztiak Nerian loradendan  
aurkituko dituzu



*Bere burua*

*durangartzat duen*

*33 urteko atxabaltar*

*hau Goiena telebista-*

*ko zuzendari izenda-*


*tu berri dute. Ilusioz*

*ekin dio lanari,*

*baina oraindik gauza*

*asko daudela egiteko*

*eta erabakitzeko dio.*



## Andoni Urzelai

### Goiena telebistako zuzendaria

■ **Zertan ibili zara orain arte?**

■ Asegarcekin proiektu ezberdinetan ibili naiz: pilota partiduetan, Bricomania eta Argiñanoren programetan. Ihardun multimedia eta Baleuko produktorekin ere lan batzuk egin ditut, baina batez ere Asegarcerekin egin dut lan errealizadore gisa.

■ **Zergatik onartu duzu Goitb-ko zuzendari izatea?**

■ Ez dakit. Mikel Irizar, Goienako zuzendari orokorra, lagun handia dut eta ekainean eskaini zidanean ezetza eman nion. ATBren lehenengo urteetan ere egon nintzen eta ez neukan lehengora bueltatzeko inolako gogorik, batez ere etapa hori bukatutzat ematen nuelako. Baina behin eta berriz esan ostean, proiektua interesgarria iruditu eta baietza eman nion azkenean. Hori

bai, 6 hilabete edo urte bete asko jota egongo naizela jakinik.

■ **Zein izango da zure lana?**

■ Goitb diseinatzea batez ere. Oraindik Goitb ez dago, ATBko seinalea zabaldu eta eskualdeko berriak ematen hasi da, baina oraindik Goitb-rik ez dago, ez estruktura bezala eta ez ezer. Erabaki asko aztertu eta hartu behar dira, zelako telebista eredua gura den esaterako: ETB txiki baten antzeko zerbait, era guztietako programekin edo informazioan bakarrik zentratu eta horren inguruko programak eman.

■ **Nola ikusten duzu Goiena proiektua?**

■ Proiektua bera oso ondo, beste biderik ez zegoela iruditzen zait, gainera. Multimedia eraikitze dagoen

ideia, eta prentsa eta telebistaren inguruan hartu diren erabakiak oso egokiak izan direla uste dut, indarrak batzea beharrezkoa baita. Telebistaren kasuan, alderdi ekonomikoa, arazo bat izan daitekeela ere ikusten dut: batetik, udaletatik datorren dirua ziurtatuta dago, baina bestetik, proiektuak aurrera ateratzeko beste diru laguntza batzuen zain egotea ez da batere egokia. Beraz, proiektua zein neurritaraino egin daitekeen ikusi beharko da.

■ **Zer behar du Goitb kalitatezko telebista izan dadin?**

■ Dirua, diru asko gainera. Jendea ez da konturatzen zein medio garestia den. Telebistan itxurak diru asko suposatzen du, ganorazko dekoratuak izatea, kabezerak egitea... dena dirua da.

Gainera, edukiak eta itxurak berdin balio du telebistan, ezin da eduki ona itxura askarraz erakutsi. Era guztietako programak egitea erabakiko balitz esaterako, beste zentru bat beharko litzaiteke programak grabatzeko, aste bukaerako lan taldeak indartu beharko liriateke... hori guztia ere dirua da.

■ **Hasierako ATB hartatik asko aldatu al da gaurko telebista?**

■ Batetik bai, baina bestetik ez. Hobeto lan egiten ikasi da, baina betiko gaitz bat dauka oraindik, lan egiteko orduan militantzia handia. Militantzia jendea erre eta utzi egiten du, langile berriak hartzen dira orduan, eta barriro zerotik hasi behar da. 10 urte pasatu ostean askoz aurreratua egon behar zela uste dut.



## Zer ote?

Paris, 2000. urteko irailaren 1a, larunbata. Eurokopako finala. Frantzia eta Alemania aurrez-aurre. Futbol zelaia gainezka dago. Irrati, telebista, agenzia eta egunkari ospetsuenak frantziako hiriburuan daude partiduen barri emateko. Bihar komunikabide gehienek emaitzaren barri emanaz hasiko dituzte albistegiak. Minutu bat falta denean, korbataz jantzitako gizon dotore batek berdegunera salto egin du, eskuzko mikrofono batekin. Sorpresa galanta. "Gora ni. Aupa Pascal Tiberi. Onena naiz", oihiu egiten du, ikusle goaren barre eta uluen artean." Mundu honetan ez dago ni bezalakorik, ez Frantzian, ez Europan, ezta unibertso guztian ere. Gora ni, bakarra naiz eta. Gora Pascal. Goral!"

Poliziak azkar urten du Tiberi jaunaren atzetik, eta harrapatu ere harrapatu dute. Pascalek ez die aurre egin, baina atxilotu eta komisaldegira eraman dute. Jendeak txaloka eta irri ironikoen artean agurtu du gure protagonista, gure peleetxoa. Peleetxoa ote?


Paris, 2000. urteko irailaren 2a, igandea. Ostiraleko final erdietan Portugal eta Grezia garaile atera ondoren, Frantziak eta Alemaniak Eurokopako finala jokatu dute bost minutu barru. Atzo entrenatzen eta partidua prestatzen eman zuten eguna. Antolatzaileek diotenez, 200 milioi pertsona inguruk jarraituko dute finala telebistaz. Baina, jokalariek berotze arietak egiten diharduten bitartean, Frantziako bandako jantzia daraman ikusle batek berdegunera salto egin du. "Gora Frantzia. Aupa Frantzia, Onenak gara", oihiu egin du bere mikrofonotik. "Ez dago gu bezalakorik mundu honetan, ez Europan, ez Amerikan, ez unibertso guztian ere. Aupa frantziarrak, bakarrak gara eta. Gora Frantzia".

Poliziak azkar urten du ikuslearen atzetik. Honek ez die aurre egin, baina atxilotu eta komisaldegira eraman dute. Jendeak txaloka eta bihotza hunkituta, berotuta agurtu du gure protagonista, gure aktoretxoa.

¿Aktoretxoa ote?

Oharra: futbol zelaia, hiriburua eta finaleko protagonistak aldatu ditzakezue.

Josu VELASCO



kanpotik etorri zirenak,  
204. urtean zirela, berotze arietak  
atzeritik eta joan zirenak  
88. Poliki-poliki bada ere  
biztanle kopurua gora  
doala esan daiteke.

HARTZAILE LAN-  
POSTUA BETE DA



**Taberna  
Berri  
jatetxea**

Durana, 26 • ARE-  
TXABALETA  
☎ 943 79 20 67

**ZARAIA  
TABERNA**

Goizeko 5,30etatik  
zure zerbitzuan  
Tel.: 943 79 88 95  
**MANTEKA ANAIK**

**IBARRA  
ESTANKOA**



Tabakoa eta  
ikasmateria

Bizkaia, 3 Tel.: 943 79 23 77



# Heldu gara 200.era!

**H**alaxe da bai, heldu gara 200.era. 200 ale! Samur esaten da, baina zenbaki horren atzean urte asko, jende ugari eta pasadizo gehiago daude.

1989. urtean Andarto kolektiboa izena hartu zuen talde hark ez zekien zeri eman zion hasiera: herriko berriak jasoko zituen aldizkari propioa izateko gogoari, hain zuzen. Borondate haundiz eta baliabide gutxikin kaleratutako lehenengo Aretxabaleto gazeta hark, 1992. urtean sortu zen Aretxagazetari bidea zabaldu zion. Bigarren etapako hau ere ez zen gauza handia izan hasiera hartan, baina atxabaltarrok gustura jaso genituen herriko barriak hamabostero-hamabostero.

Aretxagazetaren helburua sekula ez da izan aldizkari handi bat izatea, ezta beste munduko berriak kaleratzea ere. Aretxagazetak, Aretxabaleto barriak atxabaltarrei etxera eramatea besterik ez du gura izan, beti euskaraz noski, eta helburua bete dugula pentsatzea gura genuke bertako batzordekide eta langileok. Etorkezunak ez dakigu zer ekarriko digun, beharbada gaur egungo Aretxagazetari agur esateko ordua ere iritsi da. Baina lasai, Aretxabaleto barriak, hala ez bada hola, zuengana hutsik egin barik ekarriko ditugu eta.

Zortzi urtean gauza asko aldatu dira, langileak, batzordeko kideak, kolaboratzaileak, baita Aretxagazeta beraren itxura eta edukiak ere, baina bi gauza ez dira aldatu: batetik aldizkariaren espiritua, atxabaltarroi euskaraz herriko berri ematea, eta bestetik, zuek irakurleok. Benetan eskertzekoa da hamabostero noiz kalera-tuko zain egotea eta poztekoa, eguen edo eguakotxean jendea Aretxagazeta besapean hartuta edo tabernan irakurten ikustea. 200. ale honekin bazkide eta irakurleoi eskerrak eman gura dizkizuegu opari txiki baten bitartez. Ez da gauza handia, baina hor doa egutegi txiki hau datorren urtean ere gogoan izan gaitzazuen. 200 esker guztioi, eta beti arte.







1992an *Aretxagazeta* atara genuenean, ha txikia zela esaten ziguten denek; beste aldizkari guztiak "handiak" zirela.

Handik hiru urtera, *Aretxagazeta* "handitu" egin zuten. Aldizkari txiki hark zer zeukan txarrik? *National Geographic*-ek, adibidez, prestigioa dauka, 100 urteko ibilbidea, nahiz eta tamainuz txikia izan. Txikia izaten jakin egin behar da, karakter kontua besterik ez da.

Euskara dela-eta, beste horrenbeste: *Aretxabaletakoak* garela ezkutatu behar ete genuen? Ezin ete genion geure ikutua eman aldizkariari? Iparraldeko *Herria* aldizkaria euskaraz idatzi gura dutenendako ereduagarria da, eta euren nortasunari eusten jakin izan dute; 50 urtean gainera.

Orain beste globalizazio bat ei dator, eta oraingo *Aretxagazeta* kendu egingo dute beharbada, bailarakoa indartzeko. Baina nik *Aretxabaletako* berri jaso eta *Aretxagazeta* irakurtzen jarraitu gura nuke; urte askoan gainera.

Bada karakterra daukagula erakusteko garaia.

*Jon Antxia*




200 ale, 200 poztasun, 200 esperientzia, 200 burukomin, 200 lagun, horreik danak eta gehiago jaso ditut *Aretxagazetatik* azken bost

urte hauetan. Honaino heltzeko herritarren kolaborazioa behar beharrezkoa izan da, eta baita urtetik-urtera gure aldizkaian konfiantza jarri duten bezero eta bazkide guztiena ere. Aurrera begira, denon artean egindako aldizkaria izaten jarraitu beharko luke *Aretxagazetak*. Herritik sortzen dira notiziak, elkarrizketak eta erreportajeak, eta gertuko jendea behin eta berriz protagonista izan delako dauka indarra gure aldizkariak.

Horrekin guztiarekin batera, langilien atzetik ixilik lan egin duten kolaboratzaile eta batzordekideak ez nituzke ahaztu gura. Guzti hauentzat eskerrik asko eta segi orain artean bezala.

*Iratxe Bengoa*



## Data esanguratsuenak

### ■ 1989ko martxoaren 21a

*Aretxagazetaren* sorrera Andarito kolektiboaren eskutik. Formato haundikoa eta hiruhilabetekaria. 9 ale argitaratu ziren, 1991ko otsailen bukatutzat emanaz.

### ■ 1992ko martxoaren 12a

*Aretxagazeta* kultur elkarte sortu eta tamaina txikiko *Aretxagazeta* kaleratu zuen. 12-20 orrialdeko hamabostekaria zen.

### ■ 1995eko urtarrilaren 12a

*Aretxagazeta* aldizkaria tamaina haundira pasatu zen eta orrialde kopurua gehitu zitzaion 20-24ra pasatuz.

### ■ 1997ko urtarrilaren 10a

Kolorea sartu zen portadan.

### ■ 1997ko urriaren 8a

Aldizkaria interneten ikusgai jarri zuen Saretxo elkarteak. 29 ale ikus daitezke bertan, 130. zenbakitik 159. zenbakira bitartekoak.

### ■ 1998ko martxoaren 13a

*Aretxagazeta* kultur elkarte desagertu eta *Aretxabaletako* komunikabideak-Loramendi elkarte sortu zen. Aldizkaria eta gerora sortu zen telebistaren ardura izan zuen elkarte honek.

### ■ 1998ko irailaren 26a

*Aretxagazetak* bazkide kanpaina berezia egin zuen San Migel jaian. Arrakasta haundiz burutu ere kanpaina, 60 bazkide berri egin ziren.

### ■ 1998ko abenduaren 23a

Lehenengo urtekaria kaleratu zen. Urte guztian zehar ataratako barri garrantzitsuenen laburpena bildu zen 40 orrialdetan.

### ■ 1998ko abenduaren 24a

*Aretxagazetako* lan leku berriaren inauguraketa. Udalak utzitako lan lekuan, Durana kaleko 11. zenbakian jarri ziren bai *Aretxagazeta*, bai telebista.



### ■ 1999ko otsailaren 12a

Atxabalta telebista jarri zen martxan. Astean bi egunetan, martizen eta eguakotxetan emititzen zen eta bertako aurpegia Amagoia Lasagabaster izan zen, teknikaria, ostera, Haritz Altube.

### ■ 1999ko ekainaren 14a

Udal hauteskundeetan gaineko orri papera atera zen, hauteskunde osteko astelehenean. Herriko datuak batu ziren eta alkate barriarekin elkarriketa ere jaso zen. Etxe guztietara banatu zen.

### ■ 2000ko urtarrilaren 13a

Itxura barriko Aretxagazeta kaleratu zen. Portada eta barruko sailen

diseinua aldatu ziren, atal barriren bat gehituz.

### ■ 2000ko maiatzaren 5a

Atxabalta telebistaren azkenengo emisioa. Goiena proiektuan sartzekoan hau desagertu eta eskualdeko telebista martxan jarteko erabakia hartu zen.

### ■ 2000ko ekainaren 27a

Goiena kooperatiba sortzeko sinadura ekitaldia egin zen Bilbon. Aretxabaletatik Josu Sarasua Loramendi euskara elkarteko lehendakaria eta Mireia Uribebebarria, Aretxabaletako komunikabideak-Loramendi elkarteko batzordekidea izan ziren.




Aretxagazetaren jarraitzaile sutsua naitzela onartzen dut. Urte asko dira oso baliabide gutxikin sortu genuela, eta edozein egonda ere

aldizkariaren arduradun beti egin dut beraren alde.

200. ale honek harrotasunez betetzear batera poza ematen dit, baina era berean tristura ere sorrarazten dit, Goienkaria dela eta gure Aretxagazeta hau ez ei delako 250. alera iritsiko.

Askok lagundu dugu 200 ale horietan eta ez dut uste bidezkoa denik guztiok ados ez gauden proiektu bat kanpotik ezartzea. Aretxagazeta, hamabostero, egunetan postontzi, taberna eta komertzioetan egoten saiatu izan da; atxabaltarrak, gainera, zain egoten gara eta askok faltan botako dugu laster. Zorionak eta agur.

*Felis Beltran de Heredia*



Eguren ilunkarie, atsaldeko zazpiak inguru, kale ertzien, taberna txokuetan edo edozein dendatan, hor dau Aretxagazeta, labatik atara barri, bero-bero

oraindik.

Zabaldut dot orainguen kalien zeintzuk harrapau ditzuten ikusteko ta euren berbak leiruten noiala, albuen zera entzun dot: "Ze esan gure jok honek?, gaurko euskerie gatxa da entendiduten, baina tira zerbait daukouenien be". Beste batek barrez: "Kon-txo! Plenuen aprobau da hori, eskerrak Aretxagazetan horko barri datorrena, beste-la ni behintzat enterau bez". Urrintxuau ondokuak: "ikusi dozue fotografixa zarra? Noizkue ete da?, ni ez naz horrekin akordetan". "Bai gizona gu gaztetxuak gitzela ataratakué da. Albuen beste batek: Ene! beste hori be zoriondu biheko dot ahaztu barik, bestela akabauko nau, eskerrak Aretxagazeta daukouena akordau eraitteko".

Holakuak belarrira datozenien konturaketan naz benetan zelako lana beteten dauen gure aldizkaritxo honek herrixen.

Horregaittik ta beste 200 arrazoigattik, 200 mila zorion kaleraketako lanien zabitzeno ta parte hartzen dozuen danoi, merezi dozue ta, jarraitu holaxe.

*Gorette Ayastuy*

## Ezaugarri orokorrak:

■ **Elkartea:** Aretxabaletako komunikabideak-Loramendi elkarte.

■ **Lehendakaria:** Edorta Mendieta.

■ **Batzordekideak:** Arantza Antxia, Begoña Arenaza, Arrate Arkauz eta Pello Zubizarreta.

Diruzaina: Ibon Agirre.

Zuzentzaileak: Gorette Ayastuy, Mireia Uribebebarria eta Aintzane Lasa.

■ **Bazkideak:** 450

■ **Prezioa:** 1.500 pta. urtean.

■ **Urtean argitaratutako aldizkari kopurua:** 23

■ **Orrialde kopurua:** 24-28

■ **Langileak:** Iratxe Bengoa eta Mirari Altube.

■ **Kolaboratzaileak:** Mikel Arroiabe, Joseba Lopez de Armentia, Felis Beltran de Heredia, Xabier Mendizabal, Inma Miguel, Rosa del Aguila, M.J. Aretxaga, Aitor Antxia Leturia.

■ **Diru laguntzak:** Aretxabaletako udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak.



# Sustraietatik gaur egunera



■ Andarto kolektiboa 1990ean egindako afari batean.



■ Aretxagazetako lehenengo lehendakaria Jokin Antxia, eta bigarrena, Inaxio Garro.



■ 1997ko batzorde aldaketa.



■ Aretxagazetako lehenengo lehendakari eta batzordekideak.



■ 1996an Euskaldunon egunkariak antolatutako festan.



■ Bazkide berriak egiteko kanpaina 1998ko San Migeletan.






■ 1998ko udazkenean kolaboratzaileekin egindako afaria.



■ Aretxagazetak Korrikan hartu zuen parte iazko martxoan.



■ 1999ko batzar orokorra.



■ Elkarteko kideei agurra aurtengo martxoan.

## Orain arteko langileak



■ Agurtzane Elkoru,  
1992ko martxoa-  
1994ko urria.




■ Goretti Ayastuy,  
1992ko abuztua-  
1993ko uztaila.



■ Ana Heriz,  
1993ko urtarrila-  
1993ko ekaina.




■ Itxaro Zubillaga,  
1993ko iraila-  
1994ko urria.



■ Alberto Garro,  
1994ko urria-  
1995eko urtarrila.



■ Iratxe Bengoa,  
1995eko otsaila.



■ Rosa Mondragon,  
1997ko azaroa-  
1998ko urtarrila.



■ Amaia Gastañaga,  
1998ko urtarrila-  
1998ko iraila.



■ Mirari Altube,  
1998ko urria.



■ Monika Belastegi,  
1999ko ekaina-  
1999ko urria.



## Nora zoaz Aretxagazeta?

Dagoeneko 200 ale joan dira esku artean darabilzun Aretxagazeta honekin. Zortzi urte lehendabizikoz kaleratu zenetik. Hamaika lan eta buruhauste aldizkari honek bere helburuak bete zitzaizkion: hurbileko komunikazioaren esparrua euskararentzat irabazten saiatu eta atxabaltarron artean euskaraz irakurtzeko ohitura bultzatzea, alegia.

Nola edo hala, eta herri-tarron laguntzaz, gure aldizkaria helburu hauek beteaz joan da. Hamabostean behin fin-fin datorkigu zitara etxe, taberna eta herriko dendetan. Eta atxabaltarrok gustura hartzen dugu, bertako albiste, elkarrizketa eta txutxumutxuak irakurtzeko, hala espero behintzat.


Baina hemen gelditu behar ote du denak hurrengo 200 aleetara heldu arte edo aurrerapausuak

ematen ausartu behar gara? Aretxagazetan gauza berriak eskaintzeko aukerarik badela uste dugu eta horrela uste izan zuten Debagoienako euskara elkarteek ere Goiena proiektua landu eta 1999ko udazkenean aurrera atera zutenean. Bertan, eskualde mailako komunikabideak jorratzea hartu zen helburu, "ahal bezain arrakastatsu eta masibo izango ziren hedabideak sortuz eta kudeatuz, herri-tarrek kontsumitzen zuten informazioaren ahalik eta zatirik handiena euskaraz emandakoa izan zedin". Bide honi eutsiz, aukera ederra ikusten dugu herri aldizkariak indartzeko (bai gurea eta baita eskualdeko gainontzeko herrietakoak ere), berauek eskualde mailako beste eduki batzuetara zabaltzea.

Baina nola egiten da hau? Hasteko, ezin dugu

bistatik galdu herri aldizkari indarra edukien hurbiltasunean dagoela, eta aldizkariok beste eduki batzuetara zabaltzea aberasgarria izan arren, hurbileko kutsu hori galtzea ez dela komeni. Horregatik, etorkizunerako aurreikusitako dugun aldizkari berriak, bertako eta Debagoienako edukiak armonian integratu behar ditu.

Honen guztiaren fruitua datozen hilabeteotan ikusi ahal izango dugu, Goienaren baitan sorturiko lan taldeak eredu hau jorratzen diharduelako dagoeneko. Goienkaria izango du bere izena eta, azken emaitzara iritsi orduko zenbait tarteko pausu eman beharko diren arren, funtsean, Aretxagazetak gaur egungo bere izaera mantenduko du beronen baitan. Aretxabaletako gaien inguruan gaur lan-tzen ditugun atalak eta



**Edorta Mendieta**

Aretxabaletako komunikabideak-Loramendi elkarteko lehendakaria

beste berri batzuk aurkituko ditugu bertan gure jakinmina asetzeko. Eta berauekin batera Debagoienako eta berau osatzen duten bederatzita herrietako informazioaz osotutako atal bat ere izango dugu.

Agur Aretxagazeta? Ez. Kaixo **Goienkaria**.



### Gaur egungo batzordekideak

Aretxagazetako batzordea astelehenero batzen da langileekin. Asteazkenetik sortutako arazoak konpontzeaz gain, hurrengo aleko gaiak pentsatzea dagokio. Nor elkarrizketatu, zein erreportaje egin... sarritan ez da batere samurra izaten. Alea egin ahala, zuzentzaileek, idatzitakoa zuzentzen dute, nahiz eta batzuetan akatsen bat edo beste pasatu. Diruzainak, osterak, diru kontuen barri ematen du, inbertsiorik egin daitekeen edo ez... Azkenik, lehendakariari, arazo latzenak konpontzea tokatzen zaio.



# Berango

## Altzariak

**10005**  
MOBILIARIO INTEGRAL  
Banatzaile ofiziala

Sukaldeak - Armairuak - bainuak - leihoak





## KIROLAK



Atletismoa

Behobia Donostiara joateko autobusa. Azaroaren 12an ospatuko den Behobia-Donostia lasterketara joateko autobusa antolatu da Aretxabaletatik. Lasterketa ondoren, Aiako Elkano jate-txean bazkalduko da. Bidaia eta bazkariaren diru kopurua 6.000 pta da. Izena Arlutz tabernan eman behar da, azaroaren 5a baino lehen, 1000 pta ordainduta. Behobiara joatea bakarrik gura duenak, joan-etorri osoa ordaindu behar du.



Mendia

Felix eta Albertok hainbat omenaldi. Urriaren 16an Felix eta Alberto Iñurrategik Foru Aldundiak emandako 1999ko "kirol legezko portararen" saria jaso zuten. Bi anaiekin batera Jon Lazkano eta Jose Carlos Tamayok ere jaso zuten "Al filo de lo imposible" programarekin egindako espedizioagatik. Sari horrekin batera, datorren azaroaren 5ean Euskal mendizale federakundeak urrezko insignia emango die bi mendizaleei.



Pilota

Usurbilen garaipena, Urnietan beste final bat. Errasti anaiak Usurbilgo pilota txapelketan garaile izan ziren joan den urriaren 11n, Izagirre Astigarraga bikotea gainditu ondoren.

Datorren ostiralean Ibon Errasti Gipuzkoako Openeko finalean izango dugu. Esnal eta Laskurain bikotea aurrez aurre izango dituzte Ibonek eta Zabala eskoriatzarrak. Partidua datorren eguakotxean 20:00etatik aurrera jokatuko da Urnietan.



Xakea

Arlutz Bk hasi du xake denboraldia. Arlutz B xake taldeak joan den zapatuan ekin zion denboraldiari. Urretxuko Goierri taldearen aurka jokatu zuten, eta 3,5-0,5 galdu zuten aurkariaren etxean.

Denboraldia hain ondo hasi ez duten arren, taldea finkatzea eta maila mantentzea izango da taldearen aurtengo helburua. Taldekideak Esteban Romero, Jesus Mari Andres, Andoni Carrasco, Kepa Balenziaga eta Alain Sanz dira.

*Orain sei urte Arrasateko eskubaloitzaletan jokatu zuten Jonan Eskibel. Aretxabaletan eskubaloitzaletan ez zegoen, eta kirol hau atsegin zuenez, Arrasatera jo zuen. Gaur egun Arrasate eta Almeneko eskubaloitzaletan bateratuta daude, eta bertako jokalaria da.*

■ **Denboraldia hasi barri duzue, nola joan da hasiera hori?**

■ Egia esan ez gara batere ondo hasi, baina animoz indartsu gaude. Legazpi eta Lezon aurka jokatu dugu, eta biak galdu ditugu. Kontuan izan behar da, hala ere, herrialde mailako ligan gurea oso talde gaztea dela. Taldekide askok hogeitertetik behera du. Ligako gainontzeko taldekideak nagusiagoak dira.

■ **Aurtengo denboraldiko helburua.**

■ Helburu orokorra mailaz igotzea da. Hala ere, denboraldia ez dugu oso ondo hasi, eta nire ustez maila mantentzea ez da gutxi izango.

■ **Orain bi urte Arrasate eta**

**Almen taldeak bateratu egin ziren. Zer ekarri du elkarte horrek?**

■ Arrasate eskubaloitzaletan bigarren mailatik jaitsi zenean, jokalaria askok alde egin zuten. Orduan bateratzea etorri zen, eta horrek taldea sendotu egin zuen. Elkarteta ez zen batere samurra izan, batez ere, beti aurkariak izan garelako.

■ **Garai batean Atxabaltan eskubaloitzaletan bat egon zen. Gaur egun sortzeko aukerarik egongo litzatekeela uste duzu?**

■ Ni Arrasateko taldera etorri nintzen, gurean eskubaloitzaletatik ez zegoelako. Herrian jokatzeko aukera izan banu, bertan hasiko nintzen. Kontuan izan, bestalde, gure taldean sei atxabaltar gaude la orain. Herriko eskubaloitzaletan bat atera daitekeela uste dut.

■ **Bailaran zenbat eskubaloitzaletan**

**talde daude?**

■ Oñati, Bergara eta Arrasate daude eskubaloitzaletan. Oñati gu baino kategoriatan haundiagoan dago, eta bergararrak maila berean daude.

■ **Hegalean jokatu duzu. Zein da zure lana?**

■ Ni bereziki defentsan ibiltzen naiz gogor. Erasoan goleatzaileei laguntzen diet. Dena dela, neuk ere sartzen ditut golak, partiduko bi gutxigorabehera.

■ **Zein ezaugarri behar da hegalean aritzeko?**

■ Burua batez ere. Buruaz jokatu behar da, horrez gain, kanpotik golak sartzeko abilezia izan behar du hegalekoak. Defenditzeko orduan gorputza eta indarra behar dira.

■ **Lesio bat izan duzu oraintsu, errekeratuta zaude?**

■ Aurreko partiduan bizkarrean tiroi bat izan nuen, eta ondoren, bronkitisa izan dut. Aste honetan hasiko naiz


## Jonan Eskibel

### Arrasate Almen eskubaloitzaletan jokalaria

ostera ere entrenamenduekin. Jokatu hasteko desiatzen nago.

■ **Beste kirolekin konparatuta, zer du erakargarria eskubaloitzaletan?**

■ Futbolarekin konparatuz gero, mugimendu gehiago du eskubaloitzaletan. Taldekide guztiak erasoan edo defentsan gaude. Kirol bizia da oso, eta jokalaria jokoan parte hartzen du denbora guztian.







373 neska-mutilek eman du izena gure ikastetxeetan eskolaz kanpoko kirola praktikatzeko

## Eskolaz kanpoko kirola hasteko gertu

Datorren astean hasiko da Almen eta Kurtzebarri ikastetxeetan eskolaz kanpoko kirola. Guztira 373 neska-mutilek izena eman du kirol jarduera hauetan partehartzeko. Bi zentruetarako kirol eskaintza zabala eskainiko dute: saskibaloia, eskubaloia, areto futbola, atletismoa, esku pilota, igeriketa eta mendizaletasuna.

Almeneko kasuan 285 haur daude, 195 mutil eta 90 neska izena emanda. Jesus Arregik Almeneko kirol koordinatzaileak jaki-

narazi digunez, mutilek beti joera haundiagoa erakutsi dute kirola egiteko. Hala ere, DBHko infantiletan nesken kopurua nabarmen haunditu da azken bi urteotan. Horrekin batera, nesken partehartzea bultzatzea da Almenek kirol arloan duen erronketako bat. Ume guzti hauek entrenatzen, bestalde, 65 monitore inguru arituko da.

Kurtzebarritik 88 ume arituko da kirol extraeskolarreko jardueratan, orotara 47 neska eta 41 mutil.

Seigarren mailararte kirol guztiak praktikatu dituzte partehartzaileek. Nagore Eraña Kurtzebarriko eskolaz kanpoko kirol koordinatzailearen iritziz, umeentzako oso aberasgarria da hasiera batean kirol guztiak ikastea, gero gehien gustatzen zaiena aukeratu ahal izateko.

Nagusietan kirol arrakastatsuenak, mutilen kasuan futbola eta nesken kasuan saskibaloia dira, hala ere, gero eta neska gehiagok praktikatzen du futbola.

### ■ PARTIDUAK DOMU SANTU EGUNEZ

Datorren asteburuan futbol partidu gutxi izango dira Ibarrako futbol zelaian, izan ere, preferenteak eta bigarren erregionalak kanpoan jokatuko dute. Hala ere, Domu Santu egunez partiduak jokatuko dira. Euskal ligako partidua goizeko 11:30ean jokatuko da Aretxabaleta eta Amorebietaren artean Ibarran futbol zelaian. Preferenteak, barrez, 16:30etik aurrera Donostiako Intxaurren aldea hartuko du Ibarran.

### ■ MURRUKIXOK LOKALEZ ALDATU DU

Murruxikok lokal berria du, joan den asteaz geroztik. Lokal zaharra zegoen edifizioa goitik behera eraberrituko da, eta lanok urtebete inguru iraungo dutela aurreikusten da. Bitartean Durana kaleko 30. zenbakiko baxuan izango du egoitza mendizale elkarteak, lehen Toki Ona taberna egon zen lekuan. Orduetegiari dagokionez, martizenetan 19:30etik aurrera aurkituko dituzue bertan.



#### MAITE AGUILERA logopedia bulegoa

- Ahotsaren berreziketa
- Aholkatzeko arazoak
- Hitzmoteltasuna
- Mintzamina eta hizkuntza atzerapena
- Afasiak

Tel.: 943 71 50 70 / 658204076  
Dorleta, 10 4 ezk ESKORATZA

#### Dorleta taberna

Bezeroen zerbitzura

Loramendi, 8  
☎ 943 79 94 15

#### Jauregi Okindegia

Otalora, 10  
Tel.: 943 79 57 47  
Aretxabaleta





*Bikain informatika akademia zabaldu berria da Aretxabaletan. Mainer Goia dugu bertako arduraduna. Momentuz hiru ikaslekin hasi dira, baina herritarren harrera ona izan dela azpimarratu gura izan digu Mainerrek.*

## Mainer Goia

### "Gero eta beharrezkoagoa izango da ordenagailua"



■ Zer moduzko harrera izan du Bikain akademiak herrian?

■ Ona, jende dexente etorri zaigu galdezka, eta dagoeneko hiru ikasle ditugu.

■ Zer eskainiko da bertan?

■ Informatikako ikastaroez gain, klase partikularrak ere eman gura ditugu. Azken hauek herritarren beharren arabera jarriko dira martxan.

■ Zein da zure lana bertan?

■ Denetik egiten dut. Jendeari harrera eskaini, kurtsoen berri eman, gai berriak garatu, kurtsuak antolatu eta kla-seetan laguntza eskaini.

■ Office paketea, Word, Access, Excel eta Power point programak modan daude. Zein da erabilgarriena?

■ Norbere beharren arabera erabiltzen dira programa hauek. Erabilgarriena word programa bada ere, kartak, dokumentuak... egiteko, besteak ere asko erabiltzen dira.

■ Ordenagailua beharrezkoa da gaur egun?

■ Nire ustez bai. Nik asko erabiltzen dut. Poliki-poliki gero eta gehiago erabiliko da, gainera. Gure atzetik datozen gazte gehienak, esaterako, oso ondo moldatzen dira ordenagailuaren aurrean, ez diote bildurrik.

■ Jendeak beldurra dio ordenagailuari?

■ Bai, nagusietan gehiago, baina jende gazteak ere bai.

■ Etxean baduzu ordenagailurik? Eta interneta?

■ Ordenagailua bai, baina interneta ez, garestia da.

■ Zer ikasi duzu?

■ Marketing eta gestio enpresa. Komertzioko urte bat ere egin dut, eta logistikari buruzko masterra egin nuen iaz.

■ Ikasitako arloan lana aurkitzea zaila dela uste duzu?

■ Bai, ikasketak eta lanpostuak ez daude definituta, eta azkenean ez da samurra ikasitakoan lanean hastea.

■ Gaiz aldatuz, zer egiten du beasaindar batek Atxabaltan?

■ Ia ia atxabaltarra naizela esan dezaket. Orain hemen errotatuta nago, gainera. Lehen ere beti hemen ibili izan naiz, eta etxea ere bertan erosi dut.

■ Eta euskalkia, hangoa ala hemengoa erabiltzen duzu?

■ Bi euskalkietan nahastuta hitzegiten dut.

■ Zer ekarriko zenuke Beasaindik ona, eta alderantziz?

■ Han dagoen mugimendua ekarriko nuke. Herri haundia goa denez, aktibitate gehiago antolatzen dira. Eraman, bestalde, Urkulu bera eramango nuke.

#### ORAIN ARETXABALETAN ZABALIK



Matrikula  
epea zabalik

Izena emateko telefono honetara deitu: 943 71 27 80

Aralar, 6 20550 ARETXABALETA

## “ ARINSA ”

Aretxabaletako industrialdea S.A.

Basabe poligonoa "EO-10"

Tel.: 943 79 62 80/Fax: 943 79 76 19





## 2000. urtean 200 ale

Kasualidadie? Baita txakur-  
ren bioliña, be!!! Aurreko  
mendien askok eta askok  
eindako lanaren fruitua  
besteik ez da. Bizi direnak  
aurrera egitten dauela eta  
Aretxagazeta be ez dago  
atzera begira. Zorionak ba  
zuri, Aretxagazeta eta mila  
esker irakurle, honaino iris-  
tea posible egin duzulako.  
Ah! Eta bitxikeria bat.  
**Alaitz Beltran de Heredia**  
da Aretxagazetako bazkide-  
rik gazteena. Zaharrena ez  
noa aipatzera, zaharrena  
izan arren, ez baita hain  
zaharra.

Zorionak, bestalde, **Felix  
eta Alberto Iñurrategi**  
anaiei. Pasa den urriaren  
16an, "1999ko kirol legezko  
portaeraren" saria eman  
zient Foru Aldundiak, "Al filo  
de lo imposible" progra-  
man Jon Lazkano eta Jose  
Carlos Tamayorekin eginda-  
ko espedizioagatik. Baina  
ez hori bakarrik, datorren  
azaroaren 5ean, Euskal  
mendizale Federakundeak  
ere merezitako urrezko  
insignia emango die bi  
mendizaleei.

Bi anaiok ez dute inongo  
"ligan" parte hartu, baina  
hartuko balute, duda barik,  
txapeldun izango lirateke.  
Hortan saiatuko dira aur-  
tengoan Arrasate-Almen  
eskubalo taldekoak. Atxa-  
baltar batzuk be badira tar-

tean; ordezkar den **Manolo  
Lopezetik** hasi eta jokala-  
rietaraino: **Eneko Arrieta,**  
**Mikel Lopez, Jonan Eski-  
bel, Gorka Arando, Ruben  
Espeso eta Borja Vicente.**  
Animo eta ea Urdangarinen  
mailaraino iristen zareten.

Ah! eta pasa den dome-  
kan zenbatek bazkalduko  
ete genuen plazan. Nik  
neuk behintzat bazkaria  
prestatu ere ez nuen egin.  
Eguerdi aldera plaza aldera  
arrimatu eta dantza batzuk  
ikusiaz, lehenengo Arien-  
tzako buzkantzak probatu  
nittuen. Edarrak! Aurrera-  
txoago joan, eta han pulpo  
usaina! Eta horreik be bar-  
rura! Edarra! eta honez  
gero bazkaldu barik be...  
esan nion neure buruari.

Nik baino txarrago jan  
zuenik be izango zan do-  
mekan. Ezti pote bat erosi  
eta etxera! Arratsaldean  
barriro kalera ia nire patxa-  
ranak saririk merezi zuen  
ikustera, baina bai zera!  
han ez zen nire botilarik,  
norbaitek botela batzuk  
ohoztu zituzten. Kaka zaha-  
rra! Nik banuen esperan-  
tzatxoa eta akaso **Karlos  
Balbasena** baino hobea  
izango zen nirea, edo **Jesus  
Lonbideda** edo **Nerea Aiz-  
pururena** baino. Kontua da,  
ez nuela saririk jaso, baina  
bapo bazkaldu nuen behin-  
tzat.

*M. J. Arrieta*



## Sorgina eta maisua

Mariasun Landa  
Marraskilaria: Jokin  
Mitxelena  
Elkarlanean, 2000  
(Kuku saila ; 4)

Erdipurdi sorginak txanpain-botila bihurtzen zituen ira-  
kasleak; hori zen egiten zekien bakarra. Egun batez  
Kerman maisuarekin topatu zen, egun gutzia ipuinak  
kontaktzen aritzen zen maisuarekin hain zuzen eta bera  
ez zuen txanpain botila bihurtu. Mariasunek bere ohiko  
ironiaz gain ustegabeko amaiera xelebrea eskaintzen  
digu oraingoan.

Irakurtzeko istorio arina duzue honako hau, 8 urtetik  
aurrera irakurtzeko modukoa, eta beste literatur lan  
batzuk ere gogora ekartzen diguna. Mitxelenaren kolo-  
rezko marrazkiak ere oso aproposak dira, bere ohiko  
estiloan.

Joseba Lopez de Armentia

## EUSKARA ZUZENTZEN

Hona hemen gaurko akatsa.

- Atzo ikusi ~~noten~~ Goenkale telebisiñuen. (txarto)
- Ikusi ~~zozku~~ Jose Mari abarien aurrien konfesetan?
- Atzo ikusi nauen Goenkale telebisiñuen. (ondo)
- Ikusi zauen Jose Mari abarien aurrien konfesetan?





## Denetik

Betaurreko graduatu batzuk aurkitu ziren Haizea taberna ondoan. Udaletxera zuzendu.

Opel Corsa SS-BB salgai. 15.000 km. Berri berria. 943 79 27 30.

Atiko bat erosiko nuke hemen inguruan. Tel.: 670053273.

Opel Astra GSI 115 cv salgai. 1993. urtekoa. Txuria. Tel.: 943 77 09 23. (Roberto).

Piragua salgai. Whip, it. Arraunekin, "cubrebañera" eta bi globorekin. Merke. Tel.: 943 79 78 36.

Voswagen Polo diesel 1.9 salgai. SS-AX matrikuladuna. Tel.: 609541613.

Ford Sierra 2000 kotxea salgai. Egoera onean. Tel.: 943 79 68 63.

Opel Astra 3/5 1.i GT salgai dago. Matrikulazio urtea: 07 - 1993.

Kontadoreko km-ak: 72.000. Tel.: 943 79 00 47/639939587.

Kawasaky Volcan 800 motorra salgai. 900.000 pta. Tel.: 943 77 08 69.

## Iragarkiak

Sail honetan jartzen diren iragarkiak DOAN dira. Partikularren iragarkiak argitaratzen ditugu bakarrik. Aretxagazetak ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzunkizunik.

**Zure iragarkia honako txoko honetan jarri nahi baduzu, deitu 943 79 86 21 telefonora edo 943 77 18 54 erantzungailura.**

Gaixotasun arazoengatik negozioaz ezin garelako arduratu, martxan dagoen denda alokatzen da Aretxabaletan. Tel.: 626 379 326.

Bigarren eskuko ordenagailu portatila erosiko nuke. Tel.: 943 79 77 85.

Trial motorra salgai. 250 m<sup>3</sup>. 125.000 pta. Tel.: 943 79 78 36.

Roller karabana salgai. Aurreko estalkiarekin. Tel.: 943 79 46 84.

## Etxebizitza

Andra Mari auzoan gara-jea salgai. Tel.: 943 79 74 61.

Pisua salgai Aretxabaletan. Andra Mari auzoan. 943 77 13 02.

Errekabarren kalean bi lokal alokagai, 34 m<sup>2</sup>takoa bata, eta 36koa bestea. Tel.: 943 79 20 48 /943 77 14 11.

Pisua salgai Arronizen (Nafarroa). Lizarratik 15 kmtara. 90 m<sup>2</sup> + 40 m<sup>2</sup> baxua. Egoera ona du eta prezio egokia. Tel.: 941 43 10 19.

Etxebizitza salgai Aretxabaletan. Otalora, 10 2 ezk. Tel.: 943 71 46 57.

Etxebizitza salgai Aretxabaletan. Tel.: 943 79 00 28.

Pisu bat konpartitzeko gertu nago Iruinean. Lekurik baldin baduzue deitu: 943 79 39 10.

Etxebizitza alokagai Aretxabaletan. Loramendi aldean. Tel.: 943 79 56 19.

Aretxabaleta zentruan 94 m<sup>2</sup> etxebizitza salgai. Eguzki begia eta egoera onean, hiru logela, egongela, sukaldea eta bi komun. Kalefazioa eta ganbara. Tel.: 943 79 77 30.

Etxeko altzariak salgai, (umeen gela, salako altzariak, sofa...). Bi urte dituzte. Oso merke, gutxia 200.000 ptan. Tel.: 943 79 38 16. (Idoia).

Etxea salgai Aretxabaletan. Tel.: 659450579.

Etxe bat alokatu nahi dut Aretxabaletan. Tel.: 943 77 19 81.

## ERREKABARREN MEREKATAL ZENTRUA

• JUANTXO URDAITEGIA	943 79 75 42
• MARI KARMEN OINETAKO DENDA	943 79 59 85
• IRUDI ILEAPAINDEGIA	943 79 80 90
• MIREIA ARRAINDEGIA	943 79 31 59
• LEINTZ-ROSI	943 79 78 63
• ERREKABARREN FRUITATEGIA	943 79 96 43



## Lana

Alemaneko klase partikularrak ematen ditut.

Aleman filologian lizentziatua naiz.

Tel.: 943 79 57 03.

Arrasateko arrandegi batean emakume euskalduna behar da goizez lan egiteko. Gidabaimena beharrezkoa da. Tel.: 943 71 48 61/946820373.

Zerbitzaria behar da Aretxabaletako taberna batean egun erdiz lan egiteko.

Tel.: 943 79 29 36.

Bi ume zaintzeko (16:30etik aurrera) emakumea behar da.

Tel.: 666691567.

Atzerritar mutil batek lana bilatzen du.

Tel.: 686662271.

Bi ume zaintzeko pertsona bat behar da.

Tel.: 943 77 00 32.

Pertsona bat klase partikularrak emateko gertu dago. Tel.: 943 79 62 25.


Ileapaindegi baterako ileapaintzailea behar da. Tel.: 943 79 80 90.

## Lan deialdi publikoak

Arkitektoa. Oiartzungo udala. Argitaratze data: 2000/10/16.

Zinemako erdi mailako teknikariak hartzeko deialdia. Akats zuzenketa. Donostiako Udala. Argitaratze data: 2000/10/17.

Haur liburutegian arduradun lanpostua betetzeko oinarriak. Akats zuzenketa. Oñatiko Udala. Argitaratze data: 2000/10/17.



# Langai

Euskal Lan Zerbitzua

**MANTENIMENDUKO TEKNIKARIA.** Durangaldea.  
Erref.: 39403/1

**MANTENIMENDUKO ELEKTRIZISTA.** Arabako lautada.  
Erref.: 39337/2

**PRODUKTU FINANTZIEROEN KOMERTZIAL BI.** Deba Goiena.  
Erref.: 39462/0

**TELEKOMUNIKAZIO INGENIARIA.** Arrasate.  
Erref.: 38078/3

**WEB ORRIEN PROGRAMATZAILEA.** Deba garaia.  
Erref.: 39307/1

**HARATEGIKO IKASLEA.** Deba garaia.  
Erref.: 38835/2

**AHOA GARBITZEKO AUXILIARRAK.** Arabako lautada.  
Erref.: 37580/6

**TRONPA MUSIKARIA.** Arabako lautada.  
Erref.: 39921/2

Langaiko lanpostu hauetako bat interesatuz gero, ondorengo telefonoetara dei daiteke:

Bastida akademia: Aintzane Gallastegi 943 79 35 33

Deba Garaiko Mankomunitatea: Alicia Martinez 943 79 30 90

Arrasateko Udala: Marga Garmendia 943 79 09 00

**URBALTZ**  
TABERNA

Mitarte, 21 behea  
Tfnoa.: 79 79 79  
ARETXABALETA

**IZOTZ**  
Taberna

Mitarte, 16 • Tel.: 79 73 65  
Aretxabaleta

**BASABE**  
jatetxea

Basabe bidea z/g  
Tel: 943 79 91 84  
Aretxabaleta

**AZKARATE**  
ARROZTEGIA

Tailerra: Mahasterreka, 18  
BERGARA  
943 76 47 19

ARETXABALETA  
943 77 01 24

**ELIKADURA**  
BEREZIA

**T**  
**X**  
**I**  
**L**  
**A**  
**R**  
**R**  
**A**

Durana, 35  
Tel.: 943 79 10 15

Loramendi, 9  
Tel.: 943 79 44 28  
ARETXABALETA



**URRIA****28 ZAPATUA**■ **IKUSKIZUNA**

Gaztetxean Jara egongo da 22:30etik aurrera.

**AZAROA****1 EGUAZTENA**■ **DOMU SANTU EGUNA**

Santu guztien eguna.

**2 EGUENA**■ **HITZALDIA**

Luis Elberdin sexologoak hitzaldia eskainiko du udaletxe zaharrean arratsaldeko 19:00etan.

**3 EGUAHOTXA**■ **KONTZERTUA**

Arima beltza taldeak kontzertua emango du Ezkutu tabernan 22:30etik aurrera.

**9 EGUENA**■ **HITZALDIA**

Maite Ariztegi erentzien inguruko hitzaldia emango du. 19:00etatik aurrera izango da udaletxe zaharrean.

**10 EGUAHOTXA**■ **IPUIN KONTALARIA**

Pello Añorga ipuin kontalaria etorriko da umei ipuinak kontatzera. 18:30ean izango da ludotekan bertan.

**12 DOMEKA**■ **BEHOBIA DONOSTIA**

Behobia-Donostia lasterketa popularrera joateko autobusa 8etan aterako da Azbeko geltokitik.

**LEHIAKETAK**■ **LOGOTIPO LEHIAKETA**

Aretxartek, Atxabaltako merkatarien elkarteak, bere anagrama aukeratzeko logotipo lehiaketa antolatu du. Deba Garaiko eskualdeko edozein auzotarrek parte hartu ahal izango du lehiaketan. Neurria DIN A4 formatoa da eta teknika librea. Irabazleak 30.000 ptako saria jasoko du. Lanak Zubia Oinetako dendara bidali beharko dira, Mitarte, 14/20550 Aretxabaleta, 2000ko urriaren 30a baino lehen.

■ **JOSTEKO TEKNIKAK ETA ESKULAN IKASTAROA**

Kultura sailak josteko tekniken eta eskulanetako ikastarora antolatu du. Josteko teknikak eguenetan emango dira goiz eta arratsaldean. Eskulanetako ikastarora hainbat arlo landuko dira: dekorazioa, pintura, panpinak, wandal... Astelehen eta eguenetan arratsaldean eta martizen eta eguaztenetan goiz eta arratsaldean emango da. Izen emateko kultur etxera zuzendu daiteke.

**BALITXAKUK** (Hikaz berbetan)

Mikel Arroiabe

Aretxagazeta



## Zorion agurrak



**Lore Martinez**  
Urriak 15  
Hamabost eguneko atzerapenez, baina edadian aurrera zoaz. Zorionak laguneren partetik.



**Oxel Ollobarren**  
Urriak 24  
Zorionak eta muxu haundi bat familiako partetik.



**Inma de Jesus**  
Urriak 24  
Zorionak Rosaren partetik.



**Rosa del Aguila**  
Urriak 25  
Zure lankide eta laguneren partetik zorionak.



**Mikel Errasti**  
Urriak 25  
Ondo zaindu Patxi eta zorionak koadrilian partez.



**Larraitz Berezibar**  
Urriak 26  
(5 urte)  
Zorionak eta muxu haundi bat etxeko partetik.



**Leire Zubillaga**  
Urriak 26  
(3 urte)  
Zorionak etxeko danen partetik.



**Antxon Azkarate**  
Urriak 27  
(7 urte)  
Aita, ama eta Anderren partetik muxu haundi bat.



**Amaia Merino**  
Urriak 30  
Zorionak etxeko eta Gaizka eta Saioaren partetik.



**Saioa Etxebarria**  
Urriak 30  
Zure partez tragotxo bat edango dugu. Zorionak koadrilakoon partetik.



**Jesus Martinez**  
Azaroak 8  
Zorionak etxeko partetik.

Atal honetan zorion agurrik argitaratu nahi izanez gero, Aretxagazetara zuzendu. (Durana, 11 2. solairua).

## Txistuak • Txaloak

Sail honetan txistu ugari irakurtzera ohitu gara. Egia esan, gauza positiboak eta onak ikustea zaila da mundu honetan. Hala ere, gauza onik ikusi nahi duena, Gipuzkoa plazara gertura daiteke. Orain gutxi txukundu dute, eta umeentzako parke polita ipini dute bertan. Hotz ala bero egin bertako txintxaunak neska-mutikoz beteta egoten dira. Hori ikusita, etorkizuneko Aretxabaletan era horretako parke gehiago aurrekusi ditzan eskatuko nioke Udalari. Gernika plazan izan daiteke adibidez. Era berean, estalitako umeentzako parke bat ez litzake txarto egongo. Ideia horren zain, **txalo** bat horrelako inizatibentzat.



## Jaiotakoak

### ■ Asier Mongelos

**Martinez**

Urriaren 5ean.

### ■ Unai Mendieta Garcia

Urriaren 8an.

## Hildakoak

### ■ Maria Legarda

**Maiztegi Romero**

Urriaren 17an. 49 urte.

### ■ Francisco Espinar

**Malagon**

Urriaren 18an. 78 urte.

### ■ Santiago Uriarte

**Eskibel**

Urriaren 20an. 82 urte.

## Aretxabaleta

- Almen 943 71 49 07
- Aretxagazeta 943 79 86 21
- Telebista 943 79 86 21
- Basotxo 943 77 09 81
- Euskaltegia 943 79 21 68
- Gizarte-Laguntzailea 943 79 10 00
- Hezibide Elkarte 934 79 31 32
- Industrialdea 943 79 62 80
- Institutua 943 79 79 00
- Kiroletxea 943 71 26 28
- Kultur-Etxea 943 71 10 27
- Kurtzebarri Eskola 943 79 00 49
- Kurtzebarri B.H.I. 943 79 57 40
- Liburutegia 943 79 10 00
- Loramendi E.E. 943 77 09 70
- Ludoteka 943 79 05 81
- Mankomunitatea 943 79 30 90
- Murruxiko M.E. 943 79 93 74
- Musika Eskola 943 79 36 50
- Ortzadar 943 79 01 84
- Osasun zentroa 943 79 74 58
- Otalora 943 71 24 06
- Parrokia (Bulegoa) 943 79 18 42
- Pausoka Haur-Esk. 943 77 03 77
- Postetxea 943 79 28 31
- Santa Rita Ikast. 943 79 17 00
- Saretxo 943 71 26 56
- Taxi Geltokia 943 79 22 33
- Udal Bulegoak 943 79 10 00
- Udaltzaingoa 943 79 10 52
- Urats Gain 943 79 99 11

## Udaltzaingoa

- Arrasate 943 79 14 39
- Bergara 943 77 91 06
- Eskoriatza 943 71 44 07
- Oñati 943 78 04 11

## Larrialdiak

- SOS Deiak 112
- Eskualde-Ospitalea 943 03 53 00
- Ertzaintza 943 79 71 99
- Gurutze-Gorria 943 76 55 76
- Larrialdiak 943 46 11 11
- Suhiltzaileak (Oñati) 943 78 28 00

## Garraioak

- Pesa 902 10 12 10
- Renfe (Gasteiz) 945 23 02 02
- Renfe (Zumarraga) 943 72 15 15





## E Eskolako erretratua

eskolako neska-mutilen argazki zaharrak behin eta berriz izan dira kontu zaharretako protagonista. Gaurkoan ere 50. hamarkadan ataratako mutil koadri-la baten fotografia ekarri dugu gogora. Beste guztiak moduan, hau ere plazako eskilaratan ataratakoa, lehengo bolalekuaren aurrean.

Mutil guztiak fraka motxetan, esportak gora igota, baina goitik ondo estali-

ta. Ziurrenik neguko egunen batean ataratako argazkia izango da, atzeko arbolak biluzik ageri baitira.

Goian ezkerretik eskumara: **Juan Antonio Iturbe, Angel Iñurrategi, Jose Ramon Akizu, Felis Lopez (maixua), Migel Urrutia, Angel Garai.**

**Luis Txintxurreta, Remigio Gaztañaga, Pablo Idigoras, Joselu Diaz de Gereñu, Jose Luis Aretxaga, Bo-**

**nifacio San Migel, Luis Agirre, Felis Antxia, Jose Antonio Zubizarreta, Jose Mari Elkoro.**

**Jose Ramon San Migel, Jose Antonio Arenaza, Alberto Arkauz, Jose Antonio Elortondo, Pedro Urzelai, Jose Luis Gorostiaga, Jesus Mari Bengoa, Luis Zubizarreta, Iñaxio Lopez, Jose Ignacio Arenaza.**

Argazkia: Ramon Elkoro

Informazioa: Ramon Elkoro.



# LASAGABASTER

Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE Tel.: 943 79 27 27 / 943 79 13 55






*Mafecco*  
Choni Quintero

Trajeak, berokiak,  
soinekoak, gonak  
eta alkondarak.

50 urte  
Atxabalta  
jazten...

**ASENSIO**

Laster...



...harrituko  
zaitu.

**MUGARRI**

Araba Etorbidea, z/g • ARRASATE  
Tel.: 943 79 07 54 • [jefeventas@mugarri.es](mailto:jefeventas@mugarri.es)








Araba Etorbidea 5 •  
Tel. / Faxa: 943 79 41 82  
**ARRASATE**



Araba etorbidea 20 •  
Tel. / Faxa: 943 79 23 51  
**ARETXABALETA**



Asunción, 1 •  
Tel. / Faxa: 943 79 10 97  
**ARETXABALETA**

**expert** 



Mitarte 3 •  
Tel. / Faxa: 943 77 04 55  
**ARETXABALETA**

**FAGOR** 

# 50 urte

*gure bezeroen zerbitzura.*

*Eskerrik asko emandako konfiantzagatik*